

ORDENANTZA FISKALA, ETXEBIZITZA HUTSEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA

5. ordenantza

Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen II. tituluko VIII. kapituluko 184. artikulutik 191.era bitartekoetan, bi horiek ere barne, xedatutakoaren babesean.

Zerga-egitatea

2. artikulua.- Zerga-egitatea da Etxebizitza Hutsen Erregistroan alta emana izan eta udal-mugartean dauden etxebizitzaren titulartasuna.

3. artikulua.- Zergaren ondorioetarako, hutsik dagoen etxebizitzatzat joko da halakotzat aitortua izan eta Etxebizitza Hutsen Erregistroan alta emana duena.

Subjektu pasiboak

4. artikulua.- Zerga honen subjektu pasiboak dira pertsona fisiko eta juridikoak, jaraunspen jasogabeak, ondasun-erkidegoak eta nortasun juridikorik eduki gabe ere batasun ekonomikoa edo ondare banandua osatzen duten gainerako entitateak, baldin eta badira:

a) Etxebizitza hutsen gaineko jabetza-eskubidearen titularrak, etxebizitza horien gainean gozamen-eskubide errealik ez bada.

b) Etxebizitza hutsen gaineko gozamen-eskubide errealaren titularrak, hura jabeari ez badagokio.

Salbuespenak

5. artikulua.- 1) Honako hauek daude zerga honetatik salbuetsita:

a) Titular gisa funtzionario publikoak dituzten etxebizitzak, baldin eta horiek beren zereginak bete behar badituzte etxebizitza zein herritan kokaturik egon eta handik at, betiere ezar dakizkiekeen legeekin bat.

b) Titular gisa ohiko bizilekutik kanpora aldi baterako joan beharra duten langileak dituzten etxebizitzak, betiere hori gertatzen bada arrazoi tekniko, antolaketa edo ekoizpenekoengatik edo enpresaren jardunari dagozkion kontratuengatik, edo langileak mugikortasun geografikoaren menpe egoteagatik.

c) Alokairu sozialerako erabiltze aldera Administrazio Publikoaren (Nasuvinsa edo kasuan kasuko entitatea) esku jarri diren etxebizitzak.

2) Nolanahi ere, salbuespenak etxebizitza bati baino ez dio eraginen.

Zerga-oinarria

6. artikulua.- Zerga-oinarria Hiri Lurraren Kontribuzioaren ordainarazteko indarra duen bera izanen da.

Kuota

7. artikulua.- Zerga honen kuota zerga-oinarriari karga-tasa aplikatzetik sortuko da.

Karga-tasa:

8. artikulua.- Karga-tasa izanen da Ordenantza honen eranskinean ageri dena eta sortzapen-data bakoitzean aplikatzea dagokiona, Okupatu Gabeko Etxebizitzaren Erregistroko alta-dataz geroztik iragandako denboraren arabera.

Zergaren sortzapena

9. artikulua.- 1) Zerga lehen aldiz sortuko da etxebizitza hutsik dagoela aitortzen duen ebazpena ematen denean.

2) Gerora, urte bakoitzeko lehenbiziko egunean sortuko da zerga, betiere etxebizitzak Etxebizitza Hutsen Erregistroan alta emana badu.

3) Kuotak sei hilez behingoak izanen dira, seihileko naturalez kontatuta, eta seihilekoen barnean zatietzinak eta ezin txikiagotu direnak.

4) Subjektu pasiboek, kasuan kasuko espedientearen izapideak eginda, etxebizitza okupatzen den unetik aurrerako aldiari dagokion kuotaren heineko zatia itzultzeko eskatzen ahalko dute.

Zergaren kudeaketa

10. artikulua.- Etxebizitza Hutsen udal-errola aintzat hartuta egingen da zerga-ordainarazpena.

11. artikulua.- Aurreko artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, Nafarroako Gobernuako Departamentu eskudunak ofizioz jakinaraziko dizkio Iruñeko Udalarri bere udal-mugarteari dagokionez Etxebizitza Hutsen Erregistroan ematen diren altak eta bajak.

12. artikulua.- Behin alta bat eginda Erregistroan, Udalak pertsona titularrari jakinaraziko dio, indarrean den zerga-oinarria eta karga-tasa adierazita.

13. artikulua.- Zergaren kudeaketa lurraren kontribuzioaren arau berberekin bat egingen da, eta kasuan kasuko kobratze-agirien likidazioak eta jaulkipenak batera egingen dira.

TARIFA-ERANSKINA

Karga-tasa

- Lehen urtean: % 0,50
- Bigarren urtean: % 1
- Hirugarren urtean eta hurrengoetan: % 1,5

Karga-tasak bakarrak izanen dira udal-mugarte osorako.